

# XVI. MENDEA

## XVI. mendeko autoreak

### Etxegaray

(XVI. m.) Etxepare eta Lograsekin batera XVI. endean Iparraldean izan ziren hiru euskal olerkarietako bat. Etxegarayren lanaren berririk ez da ezagutzen gaur egun eta Oihenarten L'art poétique-ri esker daukagu hari buruzko aipamena.

### Bernart Etxepare

(XV. mendearen buakera aldean) Ezagutzen den euskarazko lehen liburuaren egilea izan zen, baina haren bizitzari buruz ez da gauza handirik zabaldu.

Zein herri eta urtetan jaio zen zehazterik ez dago. Garaziko eskualdean XV. mendean, eta heriotzaz ez da daturik. 1518an, Donibane Garazi ondoko Eiherralarre herrixkan zen erretore, baina lehenago Donibanen bertan egon zen apaiz. Agiriak badira fro-



gatzen dutenak 1516an Joan II.a Nafarroako erregeak, Gaztelako Fernando erregearen kontra, Donibane setiatu zuenean Etxepare han zela. Poema batean azaltzen duenez, preso egon zen Biarnon Nafarroako erregearen mende, seguraski Gaztelako erregearen alde egin zuelako. Liburu bat idatzi zuen, Linguae Vasconum Primitiae, eta Bordelen inprimatu zen 1545ean. Hamabost

*Emaztiak ez gaitz erran ene amorekatik;  
gizonak utzi balitzate, elaidite faltarik.*

*Anbüz gizon ari bada andrez gatzki erraiten,  
arbizki eta desoneski büttuzte aipatzen,  
txillika egottia ederrago itzate;  
andrek gizonoki bezi bütsik ezin daidite.*

*Zubur gutik andregatik gatzki erran diröte,  
batez bongi erraitoa onestago itzate.  
Emazteak zerengatik gaitz erranen dirate?  
Handi eta xipi oro baitarik girate.*

*Balentia sinplea da andren gaitz erraitoa,  
bat gaitz erran nabi badu, oro bardiñ sartzea;  
txil ladin nabi nuke balako den guzta;  
dama gaitzik emazteak bari eman ditbia.*

*Andren gaitz erraito orok bebar luke pensatu  
bera eta berze oro nontik ginaden sortbu,  
ama emazte luien ala ez nabi nuke galdatu,  
amagatik andre oro bebar luke goratu.*

*Gizonaren probetxuko emaztia bebi da,  
oro bebin baitarik sortzen gira mundura;  
sortbu eta bil ginete, hark baz ezpagnitza;  
baitz gero egun oroz bebar baren alata.*

*Haren eskuz osoan bebar solnera eta latena,  
eri denian andre gabe galdu gizon egurra;  
bil badadi, hura nola nor doake gahera?  
Ordu oroz bebar tugu, ezta boben zer duda.*

*Emazterik ezten lebutan eztakusat plazerik,  
ez gizona ez etzia bebin ere xaburik,  
etzian den gauza oro gatzki erregiatirik;  
parabizulan nabi emake emazterik ezpaltz.*

*Emaztiak ezta eztauz leben gizona kautirik,  
bana gizonak emaztia bebi ere lebenik;  
gatzteria talgiten da bebi gizonetarik;  
zeren, bada, daraukate emaztiari bogenik?*

*Bertuteak bebar luke gizonetan banditago,  
emaztetan nik dakusat böngtz ere gebiago;  
mila gizon gatztorik da emazte batendako,  
gizon baten mila andre bere fedean dago.(...)*

*Irudi zati, emaztia dela gauza ezta,  
donario guztetan guztiz gauza emta;  
gaoaz eta egunaz ere badu plazer bandia;  
barraz gatzki erraitia bilantia bandia.*

*Mundutan ezta gauzarik bain eder ez plazerik  
nola emaztia gizonaren petik buluzborrik;  
beso biak zabaldurik dago errendaturik,  
gizonorrek dagiela barraz nabi dutenik.*

[LINGUAE VASCONUM PERMITIAE, 1545]

poemez

da, 52 orrialde guztira, eskaintza moduko hitzaurre labur batekin.

osatutako bilduma bat

Lehenengo bi poemetan gai erlijiozkoa darabil, hurrengo hamarretan amodiozkoa, sarri gordintasun betean azaldua, hamairugarren poema autobiografikoa da (kartzelako egonaldia), eta azken bietan euskararen goiraipamena egiten du, estraineko aldiz inprimeriara ematen zelako bozkarioz bete. Euskara Garazikoa —Zizekoa— da ia oso-osorik eta neurkerari dagokionez, gehienetan, 15 silabako bertso lerro luzeak ontzen ditu bi ataletan banatuak. Bertso taxukera eta gaien erabilera herrikoia da erabat, eta lirika herrikoia antz handia du. Mitxelenaren hitzetan: “Dechepare es ante todo un realista y no perseguía bellezas irreales. Su descripción, tan rica y variada en su brevedad, de las relaciones entre enamorados es escueta y precisa, y el diálogo que pone

en su boca dramático y socarrón.

El verso nunca constituye una atadura para él. Aunque acaso compusiera los versos de tema amoroso en distinta época que los de materia devota, el hecho es que los publicó juntos, siendo ya sacerdote. Se trata de un fenómeno que sería imposible entre los autores eclesiásticos del siglo siguiente e incluso, en el mismo siglo XVI, en el protestante Leizarraga” (1960, 50. or.).

Zenbaitek Hitako Artziprestearen eta Etxepareren arteko kidesuna nabarmendu du: “Quien lee a Dechepare y conoce por otra parte a otra gran figura de la literatura castellana medieval, al famoso arcipreste de Hita y su Libro del Buen Amor, no se puede resistir a la idea del gran parecido o analogía que existe entre ambos. El arcipreste de Hita canta en su libro los dos amores, el amor bueno o de Dios, pero canta y describe también, y en forma bien libre por cierto, el amor malo o mundano. Lo mismo viene a hacer Dechepare” (Villasante 1979, 54. r.); baina, eraginei dagokienez, ezin dira ahaztu beste zenbait poeta ere, François Villon, Clément Marot eta Probenzako juglareak esaterako. Etxepareren lana Patxi Altunak honela laburbildu zuen: “Tradizio luze baten ondorengoa da, noski, gure poeta, ez batbatean sortu eta erpina jo duen bertsogintza dotore eta bikainaren fruitua.

Lehenagokorik ez dugu ezagutzen, baina izan zuen nahitaez. Horrelako poetarik eta batez ere horrelako bertsogintzarik ez da sortzen, ezin daiteke sor, goizetik gauera.

Hori egia. Baina aldi berean Etxepareren ondorengoen artean gure poetak bezalako bertso eder, zailu eta apainik —formaz ari bait naiz—, 4/4//4/3 eskemari harenak bezain hertsiki loturik, aho hizkeraren hitz andanei hark adina begiramen izan dienik, hitz batez esateko, egunoroko euskarari harkbezain bortxa gutxi eragin dionik, nekez aurki daiteke; gauzak diren bezala esateko, nekez aurkitu bakarrik ez; ez da erabat, nik ez dut bederen ezagutzen, gerokoen artean puntu horretan haren kidekorik. Ziburuko Etxeberriri, bakarra aipatzeko, alde izugarria kentzen dio. Eta hau ere tradizio hari baten, luzeagoaren, seme zen, noski. Badu Etxeparek, beraz, lehendik hartuari bere aldetik erantsi dion balio, gaitasun eta dohain franko ere; badu, agian, berari bakarrari, bere etorriari, goi argi edo goi arnasari, dagokion alderdirik ere. Tradizioari asko zor dio haren bertsogintzak, baina hark euskal bertsogintzari ekarria ere ez da inola urri izan” (1980, XX. or.). Euskarazko lehen liburua egilea izan zela aitortzen den arren, badakigu Etxeparerekin batera izan zela iparraldean beste poetarik ere, Patri Urkizuk dioen bezala: “la miraritzat jo dezakegu Parisko Liburutegi Nazionalean edirena gelditzen den ale bakarra. Hau ez balitz idoro, esan beharko ote genuke ez zela izan eskal poetarik XVI. mendean? Jakin, badakigu eta zehazki gainera izan zirela garai horretan, denboraren botere deuseztatzaileak haien aztarnak galtzen eta desegiten ahalegindu arren zenbait poeta eta hainbat bertso. Areago oraindik, badakigu izan zirela XV. mendeko gertakizunak aipatzen dituztenak eta garaikideak izan behar zutenak, noski, iritsi zaizkigunez zatiño batzuk. Eta ezagutzen ditugu ere XVI. mendeko zenbait poetaren izenak: Arnaud de Logras, Joanes Arnotegi, Joanes de Amendux, Bertrand de Salguis, Joanes de Larrumbide, Joanes Etchegaray...” (1991, XV.. r.).



## Joannes Leizarraga

(Beskoitze, 1506 ing. - Bastida, 1601) Lapurdiko idazle honen bizitzari buruz gauza gutxi heldu da gaur egunera. Dirudienez, Leizarraga apaiz katolikoa izan zen harik eta protestante egin zen arte. Ministro kalbindarra zela, Bastidako parrokian jar-



dun zuen 1567tik hil arte. 1559an, Bazkoan, Joana Albret Nafarroako erreginak uko egin zion erlijio katolikoari, eta Calvinoren fedea hartu zuen. Hortaz, hainbat ekintza bultzatu zituen bere erresuman fede berria hedatzeko. Xede horrekin, 1564an, sinodo kalbindarra egin zen Pauen, eta orduan Itun Berriaren euskararako itzulpena agindu zitzaion Leizarragari. Hala ere, lana egoki egin zedin bederatzi ministroen batzar bat eratu zen sinodo hartan bertan, Leizarragaren itzulpena arretaz begiratzeko. Bere itzulpenaren hitzaurrean esaten duenez kartzelan egon bide zen, baina arrazoirik ez du agertzen.

Badirudi, «L'Antique» (Zaharra), ezizenez ere ezagutzen zutela. Hiru itzulpen liburu eman zituen argitara Leizarragak, hirurak 1571. urtean: Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria (Biblia kalbindarraren itzulpena), Kalendrerak (Bazkoa eta ilberriak noiz diren jakiteko egutegia) eta Abc edo Christinoen instructionea. Bigarren argitalpena 1900ean egin zuten, Estrasburgon, Linschmannek eta Schuchardtek (I. Leizarragas Baskische Bücher von 1571), hitzaurre luze jakingarri batekin. 1970ean G. Arestik Itun Berriaz gainerako guztiaren argitaraldi berria egin zuen Euskal protestantismoa zer den izenburupean. 1979an Hordago argitaletxeak berriro argitaratu

zituen J.

Leizarragaren obra guztiak Linschmann eta Schuchardten edizioa oinarri hartuta eta Euskaltzaindiak beste argitalpen bat atera zuen 1990ean. Leizarragak, bere erara, euskara batu bat sortu zuen. Horretarako lapurtera hartu zuen oinarri, eta zubererarekin eta behe-nafarrerarekin osatu zuen. Leizarragaren hizkuntza jantzia eta zahar itxurakoa da; jantzia, latinetiko eta grekeratiko mailegu asko hartzen dituelako, baita euskarazko ordaina ezaguna denean ere, itzulpenari estu lotzearren; eta zahar itxurakoa, garai hartan erabiltzen ez ziren hizkuntza formak erabiltzen zituelako. Mitxelenak dioten bezala, “Vistas las cosas en conjunto, Leizarraga salvó los abundantes obstáculos con notable acierto. Leyéndole, creeríamos, si no dispusiéramos de tantos testimonios en contrario, que escribía en una lengua normalizada por largos años de práctica literaria.

Pero en realidad, según la expresión de Schuchardt, fue Leizarraga mismo quien fijó la lengua en que escribió” (1960, 53. or.).

Gerora, Leizarragaren jokabideak ez zuen jarraitzailerik izan. Ondorengo idazleak herriarengandik hurbilago ibili ziren hizkuntzari dagokionez. Linschmann, Schuchardt, Lafon, Jaurgain, Lacombe, Aresti, Altuna, Goenaga, besteak beste, arduratu izan dira Leizarragaz eta haren obraz: “Flexiones verbales empleadas por Leizarraga de Briscous en sus traducciones vascas de 1571” (Ares-ti), “Léxico empleado por Leizarraga de Briscous” (Aresti), “Gogo en Leizarraga” (Goenaga), “Leizarragaren zenbait izen sintagma” (Altuna)...

*"Berze konparazione bat proposa ziezen, zioela: Konparatu da zeruetako resuma bazi ona bere landan erein duen gizonarekin. Baina gizonak lo zeinzala, etor zedin baren etsala eta erein zezan iraka, ogi artean... eta joan zedin.*

*Eta banditu zenean belarra, eta fruktu egin zuenean, orduan ager zedin iraka ere. Onduan etorririk atta familiaren zerbitzariak erran ziezoten: 'Jauna, ez duk bazi ona erein beure landan? Nondik duk, beraz, iraka?'*

*Eta bark erran ziezen: 'Gizon etsalak bori egin du'. Eta zerbitzariak erran ziezoten: 'Nabi duk, bada, goazen eta bil dezagun buri?'*

*Eta bark erran ziezen: 'Ez, irakaren biltzean ogia ere idoki ez dezazuen barekin batean. Utz itzazue biak elkarrekin banditzera uza arterano; eta, uza denboran, erranen drauet biltzalei: 'Bil ezazue lehenik iraka, eta bers ezazue azautoz erratzekotzat; baina ogia bil ezazue ene granereri'.*

*Berze konparazione bat proposa ziezen, zioela:*

*'Konparatu da zeruetako resuma mustarda bibi gizon batek barturik bere landan erein duenarekin.*

*Zeti bait da bazi guztetako xipiena, baina banditu denean, berze belarrak baino bandiago da; eta arbore biltzen da, banbat non etorten bait dirade zeruko zorriak, eta obatzeak egiten bait dituzte baren adarretan'.*

*Berze konparazione bat erran ziezen, zioela:*

*'Konparatu da zeruetako resuma altzagariarekin, zeti emazte batek barturik bitur neurri irinen barmen gorde ukan bait du, guzia altza dadin arterano'.*

*Gauza hauek guziak erran zietzen Jesusak konparazionez jandotzei, eta konparazione gabe ez zaien munitzaten.*

*Konpli ledinzat Profetaz erran izan dena, zioela:*

*'Irakiren dit konparazionez neure aboa: deklaraturen ditut munduaren fundatzetik gonderik egon izan diraden gauzak'.*

*Onduan, utzirik populuia, etor zedin itzera Jesus; eta etorri izan zatzkan bere diszipuluak, zioitela:*

*'Deklara itzaguk landako irakaren konparazionea'.*

*Eta bark ibardesten zuela erran ziezen:*

*'Hazi ona ereten duena da gizonaren Semea. Eta landa da mundua; eta bazi ona resumiako baurrik dirade; eta iraka, Gabdoaren baurrik dirade. Eta buri erein duen etsala da deabrua; eta uza, munduaren finia da; eta uza biltzaleak, Atgeruak dirade. Bada, hala nola biltzen bait dute iraka, eta suan erretzen, hala izanen da mundu bunen finean'.*

[JESUS CHRIST GURE LAUNAIEN TESTAMENTU BERRA, 1571]

## Antso de Elso

(XVI. m.) Nafarroako fraide teatinoa izan zen. Ez da ezaguna non eta noiz sortu zen. Euskaraz idatziriko lehen dotrina eman zuen argitara —Lizarran Villasanteren ustez— Doctrina christiana y pasto espiritual del alma para los que tienen cargo de almas y para todos estados, en castellano y vascuence (1561) izenburupean. Ez da ordea liburuaren alerik geratu, eta haren aipamen batzuk baizik ez dira ezagutzen. Mitxelenak, adibidez, zera dio: “El primer catecismo en vascuence de que se tiene noticia, aunque no se conserva ningún ejemplar, es la Doctrina christiana en castellano y vascuence de Sancho de Elso, impresa en Pamplona en 1561 según Nicolás Antonio. Más adelante, una provisión fechada a primeros de 1608 de don Antonio Venegas de Figueroa, obispo de Pamplona, asegura que la doctrina se ha hecho imprimir en vascuence y en las demás lenguas que se usan en este obispado, lo que confirma las palabras de Echave. Algunos años después, el guipuzcoano Isasti habla también en el mismo sentido: ... y el Obispo de Pamplona D. Antonio de Venegas mandó hacer un catecismo o cartilla de la doctrina cristiana en bascuence, que anda impreso, y después se ha escrito otros para que en ellos aprendan los niños de Guipúzcoa y Vizcaya las oraciones y la doctrina” (1960, 63. or.).



## Esteban Garibay eta Zamalloa

(Arrasate, 1533 - Madril, 1599) Historialari eta errege kronikaria izan zen. Oñatiko unibertsitatean, Gasteizen eta Santo Domingo de la Calzadan egin zituen ikasketak. Gaztetan gudarostean egon zen eta alferez titulua jaso zuen. Arrasateko alkate izan zen 1568-1569 urteetan. Gipuzkoako egoerari buruz eginiko azterketen fruitu, Batzar Nagusien erreforma eta ontzigintzaren gainbehera aztertzen zituen hirurogei ataleko obra idatzi zuen. Historialari gisa, Espainiako lehen historia unibertsala (1571) idatzi zuen, 40 liburukitan banatua, 32 urte zituela (Los XL libros del Compendio historial de las chronicas y universal historia de todos los reynos de España). Diru estuasun batzuen ondoren, Felipe II.ak harrera egin zion Escorialen eta erregearen liburuzain izendatu zuen 1575ean. 1585. urtean Madril joan zen eta historia eta genealogia lanak egin zituen bertan (Ilustraciones Genealógicas de los Catholicos Reyes de las Españas, y de los Christianissimos de Francia, y de los Emperadores de Constantinopla, hasta el Catholico Rey nuestro señor don Philipe el II, y sus serenísimos hijos, 1586).



Espainiako erregearen kronikari izendatu zuten 1592an. Garibayk ospe handia izan zuen bere garaian, baina ez zuten aintzat hartu XVII. mende erdialdetik aurrera, fantasiara erraz jotzen zuelakoan. Idazle eta langile nekaezina izan zen eta inork ez bezala ezagutzen zuen Euskal Herriko Erdi Aroaren bukaerako historia, nahiz, garaiak agintzen zuen bezala, Gaztelako erregeen alde egiten saiatu zen etengabe. Ez da Garibayk euskaraz eginiko testurik ezagutzen, baina esaera zaharren bilduma bat egin zuen, Julio de Urquijok RIEVen argitaratu zuena.

Esaera horiek gehienbat bizkaierazkoak dira.

Garibay hizkuntzalari, etimologista eta filologo gisa, Jose Ramon Zubiaurrek honela agertzen du: “Garibai tubalismo eta Baskokantabrismoaren jarraitzailea dugu. Hori dena frogatzeko toponimiaz baliatu zen gure arrasatearra eta honetan datza bere meritoa: toponimiari emandako garrantzian. (...) Lehen nahiko normala zen etimologia txarrak asmatzea, eta Garibaik horrelakorik ere aurkezten digu bere obretan. Baina euskal etimologia onak proposatu zizkigula ere esan behar da behin eta berriz. (...) Filologo

baten lanik premiazkoena hizkuntza baten testuak jasotzea eta ondo transmititzea izan da betidanik, batez ere testu zaharrak.

Garibai, erdiaroko euskal testuen lehenetariko biltzailea dugu” (1989, 50. or.).



*“Gezurak buztana labur”.*  
*“Andra ederra, etxean gerra”.*  
*“Villarreal de Urrozai, beti gerra darratza”.*  
[GARIBAIEN ERREPTRAUAK, 1591-1592]

## Juan Perez Betolaza

(Betolaza, ? - Santo Domingo de la Calzada, 1.600 ing.)Calahorrako elizbarrutiko apezpikuak aginduta Doctrina Christiana en Romance y Basquenze (Bilbo, 1596) izeneko lana burutu zuen. Bizkaieraz egina, literatura aldetik baliorik ez izan arren, erdaraz idatzirik dotrina baten euskarazko laburpen hau mendebalean idatzitako lehen argitalpena da, eta ezagutzen den euskarazko dotrinarik zaharrena. Antso de Elso nafarrak beste bat egin zuen (1561), baina ez da alerik aurkitu.

## Nicolas Landuchio

(Luca, Toscana, XVI. m.)Ezagutzen den lehen euskal hiztegiaren egilea izan zen. Dictionarium Linguae Cantabricae (1562) izenburuko obra osatu zuen.

Gasteiz inguruko hizkera jaso zuen bertan, eta agertzen dituen hitzen artean askok jatorri erromantzea dute. Garrantzitsua da egin zen garaian eta tokian egina delako, baina batez ere beste inon agertzen ez diren hitzak agertzen direlako eta hitz erromantzeek euskal ahotan izan zuten bilakaera aztertzeko bidea ematen duelako. Villasantek dioenez, Landuchioren obra euskarari erasotzeko aitzakia aproposa izan zen zenbaitentzat: “Mayans, en el siglo XVIII, se apoyaba en este documento, entonces inédito, para decir que la mayoría de las palabras del vascuence eran meros préstamos del romance.



Naturalmente, nada habría que replicarle si este vocabulario fuese el exponente fiel del



caudal lexical del euskera, pero diszuten

## **Arnaut Logras**

(XVI. m.).Nafarroa Beherean jaio zen. Utziateko priorea eta Amikuze-Oztibarreko bikario izan zen. Idazlanei dagokionez, olerkiak idatzi zituen. Etxeparek bezala, 15 silabakobertso lerroak idatzi omen zituen. Gaur egun ez da ezagutzen haren idazlanik. Oihenarten L'art poétiquen bakarrik dago hari buruzko aipamena.

## **Bertrand de Sauguis**


(Zalgize, XVI.-XVII. m.)Zaldun higanota izan zen, Zalgizeko gazteluan sortua. Oihenartek eman zuen haren berri, eta soneto bat eskaini zion.

Esaera zaharren biltzailea izan zen. Sauguisek bildutakoak Julio de Urquijok argitaratu zituen RIEV aldizkarian Los Refranes vascos de Sauguis izenburupean. Olerkaria ere izan bide zen, baina ez da haren olerkirikgorde. “Estas poesías se han perdido desgraciadamente, y sólo conservamos de él una colección de 205 refranes, precedida de un vocabulario, que había enviado a Oihenart” (Mitzelena 1960, 81. or.).

## **Fray Juan de Zumarraga**

(Durango, 1475 - Mexiko, 1548) Frantziskotar ordenatu zen gazterik, eta Mexikoko lehen apezpikua eta artzapezpikua izan zen. 1527. urtean Espainia Berriko, gaur egungo Mexikoko, lehen apezpiku izendatu zuten. Erasmoren eta Thomas Moreren jarraitzaile izanik, indiarrek kristau bihurtzeko bide berriak bilatu zituen.1533. urtean Valladoliden apezpiku egin zuten, eta ondoren Mexikora itzuli zen, esklabotasuna indargabetzen zuen 1530. urteko zedula betearazteko, eta Antonio de Mendoza erregeordearen laguntza izan zuen. Indiarren alde izan zuen jarreragatik egin zen ezagun; haien sakabanaketa saihesten saiatu zen, hezkuntza eta eskolak bultzatu zituen, eta orobat kolonizazioa eta laborantza. Obra nagusiak: Doctrina breve (1543-1544, Doctrina laburra) eta Regla

cristiana (1547, Kristau arauak). Zumarragaren euskarazko karta bat gorde da, 1537an bere arrebari idatzia.



## Joan Perez Lazarraga

Joan Perez Lazarragakoren eskuizkribua [arabar idazleak berak](#) gutxi gorabehera [1567tik 1602ra](#) bitartean idatzitako lanak biltzen dituen paper sorta da. [XVI. mendetik](#) iritsi zaizkigun [euskarazko](#) testu bakarretakoa dugu, eta [Hego Euskal Herriko](#) literatura idazlan zaharrena. Halaber, [Euskal Herria](#) (*eusquel erria*) izena dakarren lehen idazkia dugu Lazarragarena; hiru aldiz ageri da eskuizkribu osoan.

[Artzain nobela](#) batek eta 21 koplek osatzen dute eskuizkribua. Guztira 51 orri dira eskuizkribuan), gehienak euskaraz idatziak (% 88 inguru), eta gainerakoak gaztelaniaz idatziak; baina pleguak ez daude osorik, eta gutxienez beste hamasei orri galdu dira ezagutzen dugun zatian, gehi aurretik izan zitezkeenak, artzain eleberria *in media res* hasten baita.

## Aurkikuntza eta aurkezpena

[Borja Aginagaldek](#) aurkitu zuen, [Madrilgo](#) zaharki-salerosle batenean, eta [2004ko otsailaren 18an](#) aurkeztu zuen jendaurrean.

Eskuizkribuaren aurkezpena gertakizun mediatiko garrantzitsua izan zen, euskal testuen tradizioan aspaldian izandako aurkikuntzarik garrantzitsuena izan baitzen, besteak beste arrazoi hauengatik:

- Euskal hizkuntzako eta literaturako balioagatik: altxor aberatsa da XVI-XVII. mendeetako euskara —eta bereziki [Arabako euskara](#)— ezagutzeko eta aztertzeko.
- Hizkuntzaren aldetik, badira hapaxak, hitz askoren lehenengo lekukotasuna aurkitzen da, oso bakantzat genituen erabilerak berresten dira, beste inon ezagutzen ez diren egiturak ageri dira.
- Duen tamaina eta formarengatik: 102 orrialdez osatutako lan mardula da, tamaina handikoa. Estilo tradizionallean idatzitako gorteko lirika da Lazarragaren lana, eta badirudi ezagutzen zituela garaiko euskal bertso molde erabilienak.
- Euskalki aldetiko garrantziagatik: informazio berria eskaintzen du [euskalkien](#) historia argitzeko.

## Testuaren egitura

Edukiari dagokionez, eskuizkribuko testu nagusian bi atal bereizten dira nabarmenki: lehenik [artzain liburu](#) bat (testu nagusiaren % 32), gehienbat prosan idatzia, tartekatuak dituen arren kantu moduko poemak; bigarrenik, askotariko poema eta kantuen bilduma, haietarik 37 [euskaraz](#) idatziak, eta gainerako 9ak [gaztelaniaz](#).

## **Artzain liburua**

Artzain liburuaren hasiera eta bukaera galdu dira. Artzain nobelak genero arrakastatsua izan ziren [Europar XVI. mendean](#), eta [Jorge de Montemayor portugaldarrak](#) gaztelaniaz idatzitako *Los siete libros de la Diana* (1559) Europa osoan itzuli eta imitatu zuten; badirudi ildo horretan kokatu behar dela Lazarragaren prosa lana.

Artzain liburuak, funtsean, amodio nahasien istorioa kontatzen du: Silberok Sirena maite du, Sirenak Doristeo, Doristeok Silbia, eta Silbiak Silbero (baina amodio kateak ez du beste alderako biderik). Beste pertsonaiak hauek dira: Dorido, Clarian, Narvaez, Marte eta Cupido.

## **Poema eta kantuen bilduma**

Askotariko poema eta kantuak dira, haietarik 37 [euskaraz](#) idatziak, eta gainerako 9ak [gaztelaniaz](#).

Maitasun kontuak dira gai nagusia, baina badira erlijiozkoak, narratiboak, isekazkoak...

[http://www.euskara.euskadi.net/r59-luredir/es/contenidos/articulo/c0301/eu\\_d0301013/0301013.html](http://www.euskara.euskadi.net/r59-luredir/es/contenidos/articulo/c0301/eu_d0301013/0301013.html)